

EUSKADIKO ALBISTEAK

110 zk. - 2008

Lehendakariak bakea eta normalizazio politikoa lortzeko bide bat eskaini dio Zapaterori

Ibarretxe ziur dago 2008 urtea “konponbide” politikoaren urtea izango dela



Zapatero eta Ibarretxe elkar agurtzen azken topaketetako batean.

Euskadin bakea eta normalizazio politikoa lortzeko “konponbidea” iritsiko den urtean gaudela ziur dagoenez, Ibarretxe Lehendakariak bere eskaintza berretsi dio Zapatero presidenteari, hemendik ekainera bitartean bi kontu horien inguruko hitzarmena erdiesteko. Era berean, Ibarretxek zalantzan jarri du berriz ere Zapateroren jarrera, izan ere ETA-rekin duela hilabete batzuk

hizpide izan zituen gaiak ez ditu Lehendakariarekin jorratu nahi.

“Elkar ulertzeraz kondentuta gaude”, esan zuen Lehendakariak Hauteskunde Orokorrak izan eta egun batzuetara Radio Euskadin egin zioten elkarrizketa batean. Hauteskundean PSOE argi eta garbi nagusitu zen, gehiengo absolutua lortu ez zuen arren. Oso baldintzatutako hauteskun-

politikoan hasteko ordua, eta erantsi zuen “erabat irekita” dagoela akordio batera iristeko, “XXI. mendean Euskadi eta Espainiaren arteko bizikidetzaz adeitsua izan dadin”.

Zentzu horretan, Ibarretxek euskal sozialistak kritikatu zituen, haien ustez, edozein negoziatori ekin aurretik, Lehendakariak bere proposamena baztertu behar luke eta. “Guk ez diogu

eskatuko Alderdi Sozialistari ezer baztertzeko, edo modu diferente batean pentsatzeko. Ni ez nator bat haien ideiekin, baina errespetatzen ditut, eta gustatuko litzaidake haiek ere esatea Lehendakariaren ideiak errespetatzen dituztela, edozein negoziatiziotan hasi aurretik funtsezkoa baita esatea bestearen ideiak errespetatzen direla”, nabarmendu zuen elkarrizketaren une batean.

Puntu horretan, Eusko Legebiltzarrak kontsulta egiteko eman beharreko baimena aurrera ateratzeko EHAKren sostengua negoziatzeko prest egongo ote litzatekeen galdetu ziotenean, “garaik ez aurreratzea” eskatu zuen Ibarretxek. “Ekainean denok erretratatu gara demokratikoki”, adierazi zuen gai horri buruz. ▶

AURKIBIDEA

▼ HOGETA HAMAR EGUN EUSKADIN

Sozialistek berriz ere irabazi dituzte hauteskunde orokorrak. Bipartidismoak eta ETArekin azken hilketak markatutako hauteskundeak izan dira.

2. orrialdea

▼ EZAGUTU EUSKADI

Bermeoko kostaldean Eusko Gudontzidiaren Laguntzako buroio baten hondakinak aurkitu dituzte.

3. orrialdea

▼ KONTUAN HARTZEKOAK

Mike Olfeld-ek Bilbon aurkeztu du bere lan berria mundu osoaren aurrean.

Euskaldunak, Estatu osoko melomanoenak.

4. orrialdea

(1. orrialdetik dator)

Bake-prozesu berria

Elkarrizketaren une horretan, Lehendakariari galdetu zioten ea Zapatero Presidenteak beste bake-prozesu bat abiarazi beharko lukeen berriz ere agintaldi honetan, ETArekin azken hilketaren ondoren. Zentzu horretan, Ibarretxek gogorarazi zuen “Espainiako presidente guztiek” ETArekin hitz egin dutela, eta erakunde terroristak “Espainiako presidentekin” hitz egin duela. “Baina ETak ez du ezerein Lehendakariarekin hitz egin”, azpimarratu zuen.

Horren ostean, adierazi zuen: “ez gara inoiz ETA eta Espainiako presidenteen arteko elkarrizketaren aurka egon”. Halaber, Ibarretxek esan zuen ez duela ulertzen zergatik Zapaterok uko egiten dion berarekin hitz egiteari ETArekin hizpide izan dituen gai berberen inguruan.

“Beste bake prozesu bat ireki behar den ala ez eztabaidatu baino, Zapaterok egin behar duena Lehendakariarekin hitz egitea da, eta irtenbide politiko bat negoziatu herri honen etorkizunerako. Gero, akordio hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko genuke, eta ondoren denok batera kontsultarako deialdi bat egingo genuke, euskal gizarteak erabaki dezan”, erantsi zuen.

Gai horren inguruan Lehendakariak irmo hitz egin zuen, eta ohar-tarazi zuen ez duela inoiz onartuko ETak Euskal Gizartearen ordezkatzea negoziazio politiko batean, ezta “haien baimena eskatu behar izatea alderdi politikoen arteko elkarrizketak hasteko”. “ETA al da itxaropena piztu behar duena?”, galdetu zuen Lehendakariak. Halaber, adierazi zuen ez duela inolaz ere onartuko erakunde terroristak erabakitzea “noiz eta zertaz hitz egin behar dugun Zapaterok eta biok”.

Ibarretxek ez zuen alde batera utzi nahi izan ETak, hauteskunderarako bi egun besterik falta ez zirenean, Arrasateko sozialisten zinegotzi ohia hil zuela. Lehendakariaren aburuz, ekintza hori “koldarkeria- eta doilorkeria-gaindosia da ETaren aldetik”, eta erakunde terroristak “iparra erabat galduta duela” esan ondoren, ETak bere krimenak zuzitzeko Euskal Herriaren izena “ez zikintzeko” eta haren izena ez erabiltzeko exijitu zion.

Sozialistek berriz ere irabazi dituzte hauteskunde orokorrak. Bipartidismoak markatutako hauteskundeak izan dira


Nazionalistak erabakigarriak izango dira hurrengo legegintzaldian

Era berean, Espainiako Kongresuaren eta Senatuaren osadera erabakiko duten martxoaren 9ko Hauteskunde Orokorrak emaitzak izan zituen hizpide Lehendakariak. Honenbestez, Ibarretxek eta haren gobernuko kideek onartu zuten emaitzak ez zirela onak izan Euskadiko hiruko gobernuarentzat. Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Partidu Sozialistak garaipen zabala lortu zuen

ordezkari gehiago ditu orain, hau da, 154 diputatu guztira. Horiek horrela, Jose Luis Rodriguez Zapatero hautagai sozialista Espainiako Gobernuako Presidente izango da berriz ere datozen lau urteetan.

Datuak jakinarazi ondoren egingako lehen balorazio batean, Eusko Jaurlaritzak onartu du gobernu osatzen duten hiru alderdiek lortutako emaitzak ez direla “espero zituztenak”, eta gogorarazi zuen hauteskunde orokorrak zirela eta ez autonomikoak.

Lehendakariak ere ideia hori azpimarratu zuen, eta aitortu zuen emaitzak “txarrak” izan zirela. Gainera, PSOE eta PPren jarrera



Hauteskunde Orokorrak, izan ere, Arabako eta Gipuzkoako lehen postuan sendotu ez ezik, Bizkaian ere irabazi zuen lehen aldiz, EAJri lehen postua kenduta. PSE lehen indarra da EAeko hiru hiriburuetan ere.


Guztira, euskal sozialistek Espainiako Parlamentuan EAeri esleitutako 18 eserlekuetatik 9 lortu zituzten, aurreko hauteskunde orokorretan baino bi gehiago. EAJk 6 lortu zituen, bat galduta, PPK 3, beste eserleku bat galduta, eta EAK ere duela lau urte erdietsi zuen eserleku bakarra galduta.

Estatuan, PSOE izan zen hauteskunderarako irabazle garbia, 169 eserleku –PPk baino bost gehiago– lortu baitzituen Kongresuan. PPK, irabazi ez arren, lehen baino 6

kritikatu zuen, bere ustez, “Raxoi eta Zapaterorentzat eskatu zituzten bozak Eusko Jaurlaritza, Lehendakaria eta EAJ zigortzeko erabili nahi izan baitituzte”.

“Denok gara arrakasten eta, era berean, porroten arduradun”, adierazi zuen Lehendakariak. Gainera, bere ustez, “ez dugu damutu behar” eta “aurrera begiratu behar dugu”, eta herritarrei esan “ilusioz beterik gaudela eta urte hau segur aski azken garaietako inportanteena izango dela egoera honi konponbidea bilatzeko, eta, era horretan, irtenbiderik eskaintzen ez diogulako politikarekin nazkatuta dagoen gizartearen zati bat erakartzen saiatzeko. Zuzen baitago gizartearen zati hori”, esan zuen Lehendakariak.

Zantzu guztien arabera, Matxixakoko batailan parte hartu zuen Nabarra ontzi mitikoa da



Bermeoko kostaldean Eusko Gudontzidiaren Laguntzako bou baten hondakinak aurkitu dituzte

Urpekari-talde batek udaberrian aztertuko du hondoratutako ontzia, ontzi mitikoa dela behin betiko egiaztatzeko

Aukera handiak daude Nabarra ontzi mitikoa izateko, baina zuhur jokatu beharra dago. Kontua da Bermeoko kostaldean Eusko Jaurlaritzako teknikariek berriki aurkitu dituzten hondakinak identifikatu behar direla, eta badi-rudi bou motako ontzi batenak direla, Gerra Zibilean Eusko Gudontzidiaren Laguntzako bou gisa borrokatu zena, hain zuzen.

Itxura guztien arabera, Nabarra boua dirudi, 1937an, Matxixakoko batailan Canarias gurutze-ontziak eskifaiako hainbat lagun barruan zeudela hondoratu zuen ontzia. Nolanahi ere, behin betiko egiaztapena udaberrian izango

da, udaberri honetan urpekari-talde batek hondoratutako ontziaren laginak hartzeko ikuskapen bat egiten duenean.

Nabarra izatekotan, interes goreneko aurkikuntza historikoa litzateke, historiagileek eta adituek Matxixakoko batailari egozten dioten garrantzia dela-eta. Izan ere, askoren ustez, “Gerra Zibileko itsas bataila epiko eta heroikoena izan zen”.

Aurkikuntza baten historia

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko Azti Teknalia Fundazioaren teknikariak



Bermeon aurkitu duten hondoratutako ontziaren 3Dko erreplika

izan ziren iazko udan ontzia aurkitu zutenak, itsasoaren hondoaren mapa bat egiten ari ziren bitartean. Hondakinok 100 bat metrora hondoratuta zeuden, nahiko egoera onean. Aurtengo otsailan egindako beste miaketa batean, urrutitik kontrolatutako urpeko ontzi berezi batek jasotako datuak aztertzera-koan egiaztatu denez makinilla, baranda, aingurak eta idi-begiak bat datoz Nabarra bouak zituenekin. Neurriak ere bat datoz: 65,40 m luze. Horrez gain, aurkitutako ontzia bitan zatituta dago popa aldetik, eta Nabarra ontzia popatik hondoratu zen. Hartara, aukera handiak daude hondoratutako ontzi horren hondakinak bou mitikoarenak izateko.

Hala eta guztiz ere, froga eztabaidaezin bat falta da: brankako kanoia; ez dute aurkitu, eta kanoiak egon beharko lukeen ingurua oso egoera txarrean dago. Dena den, urpekari espezializatuek ikuspen bat egiten dutenean soilik berretsi ahal izango da erabateko segurtasunarekin –itsasoa bareago dagoenean egingo da hori–, eta froga eztabaidaezinetako bat (kanpaia, gorpuren bat, etab.) lortzen dutenean.

Borroka desorekatua eta heroikoa

1937ko martxoaren 5eko egunsentian, Nabarra boua, gerrarako egokitutako bakailao-ontzi bat, Eusko Gudontzidiaren Laguntzako ontzia, ahultasun nabarmenean egon arren, kartsuki borrokatu zen Matxixakoko Lurmuturreko uretan artilleria indartsua eta mila tostarteko zituen Canarias ontzi frankistaren aurka. Nabarra hainbat bouz osatutako konboi bateko ontzia zen, eta Galdames merkantzia-ontziari babesa ematea zuen helburu, izan ere, Baionatik Bilbora zihoan 173 lagunekin eta Eusko Jaurlaritzarentzat Belgikan egindako hiru tona nikelezko txanponekin. Aldi berean, Canarias ontzia Ferroletik abiatu zen, merkantzia-ontzia geldiarazi nahian.

Hiru ordu baino gehiagotan Nabarra ontziak aurre egin zion korazatu ahaltsuari, baina ezkenean tiro bat jaso zuen galdaretan. Hondoratu baino lehen, komandanteak, Enrique Morenok, ontzia uzteko baimena eman zion 49 gudariz osatutako eskifaiari. Haietako batzuk ontzitik atera ziren, baina beste batzuk beren kapitainaren alboan hondoratu ziren. Bizirik irten zirenak heriotza-zigorrrera kondenatu zituzten, baina Francok indultatu egin zituen ondoren, borrokan erakutsi zuten adorea zela eta.

Euskaldunak, Estatu osoko melomanoenak

Egile eta Editoreen Elkartearen ikerketa batek dio Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak direla Estatu osoko melomanoenak, biztanle gehien-gehienek (%73,5) aitortzen baitute egunero entzuten dutela musika, eta % 7,8k soilik aitortzen du ez duela "inoiz" edo "ia inoiz" entzun musika joan den urtean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak egindako beste inkesta baten arabera, euskaldunek gehien maitatzen duten musikarietako batzuk La Oreja de Van Gogh, Benito Lertxundi, Kepa Junkera edo Joaquin Sabina dira, eta beren estilo gustukoena pop musika da, rockaren eta musika klasikoaren aurretik.

Musikazaleen ehunekoa altuagoa da gazteen artean. Hala, % 76raino iristen da 18 eta 29 urte arteko biztanleen artean.

Horrez gain, Osasunari buruzko Nazio mailako Inkestak dioe-

Bruce Springsteenek arrakasta handia izan zuen bere euskal jarraitzaileen artean azken biran.



nari jarraiki, euskal gazteak dira telebistaren aurrean ordu gutxien ematen dutenak, eta halaber bideojokotan eta interneten gutxien aritzen direnak. Inkesta horrek lotzeko arazoekin lotzen du ikus-entzunezko baliabide horien gehiegizko erabilera, baina Euskadiko ume eta nerabeen (urtebetetik 15 urtera) kontsumoa ez da eguneko hiru ordu baino gehiagokoa astegunetan.

Mike Oldfield-ek Guggenheimen aurkeztu du bere lan berria

Mike Oldfield musikari ospetsuak Bilboko Guggenheim Museoaren ataria aukeratu du bere azken lana, "Music of the Spheres" (Esferen Musika) munduaren aurrean aurkezteko. Azken lanaren interpretazioa zuzenean jarraitu zuen entzuleen taldea oso urria izan zen, mundu osoko hainbat kazetari espezializatuk osatua gehienbat.

Azken lana, nolabaiteko batasuna osatzen duten hamalau abestik osatua, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera interpretatu zuen konpositore britainiarrak, eta haiekin batera, Hayley Westenra Zeelanda Berriko sopranoak eta Bilboko Koru Elkarteak ere protagonismo nabarmena izan zuten.

Aurkezpenean zeuden entzuleek txaloaldi luze batekin eskertu zuten "Tubular Bells" mitikoaren egilearen lan berria, eta britainiarrak "Music of the Spheres" musika klasikoko bere lehen obra dela aitortu zuten.

Berri laburrak

Euskadiko Liburutegi Nazionalak badu egoitza eta Donostiako Koldo Mitxelena eraikinean kokatuko da, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak hiriarren kultura-ekipamenduak berrantolatzeke izenpetutako hitzarmen garrantzitsuak diosenaren arabera. Akordio horren bidez, halaber, Euskadiko Filmategiaren funtsak, Donostia Kulturako Zinemako Unitatea, Koldo Mitxelena eta Arteleku zentroetako erakusketa-gelak ere Tabakalerara, Donostiako Kultura Garai-kidearen Zentroa izango dena, eraman-go dituzte, horixe izango baita 2013rako Gipuzkoako ikus-kulturako ardatz berria.

Guggenheim Museoa ikusgai egon diren bi erakusketa iaz munduan bisita gehien jaso zituztenen artean daude, The Art Newspaper arteari buruzko Londresko aldizkariak osatutako zerrenda baten arabera. Bi erakusketa horiek honako hauek dira: Anselm Kiefer artista alemanaren azken hamarkadako lanen inguruko atzera begirako erakusketa eta euskal arte garaikidearen panoramaren gaineko entsegu didaktikoa, Euskadiko Arte Garaikidearen Kartografiak izenekoa, 40ko hamarkadaren bukatetik gaur egun arteko euskal artearen bilakaera aztertzeke euskal museoak berriaz agindutakoa.

Euskal Sukaldaritza Txinara iritsi da Jon Alaña txefaren ekimenari esker, aurki irekiko baitu Shangaiko lehen euskal jatetxea. Jatetxe berriak Kuluxka izango du izena, eta bertan sukaldari gazteak euskal sukaldaritza tradizionalaren bikainena eskainiko du. Hala ere, jatetxearen izarra bakailaia saltsa berdean izango da, plater horixe omen da-eta txinatarrek gustukoaren dutena.

Hollywoodek Black to the Moon hiru dimentsioko animazioko euskal filmaren eskubideak erosi ditu Estatu Batuetarako eta Latinoamerikarako. Oraindik produkzioan dago zinta, eta Baleuko ekoizpen-etxeko proiekturik handinahiena da. Ez da ahaztu behar euskal ekoizpen-etxeak baduela Goya sari bat eta beste hainbat izendapen animazioko beste zenbait produkturik lortutakoak. Orain, Hollywoodeko Farcor Studios etxeko arduradunak izan dira Baleuko ekoizpen-etxeak era guztietako ikusleengana iristeko ahalmen handia duela ikusi dutenak.